

Axuri beltza



PROPOSAMEN DIDAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. IKASTURTEETAN ARTE ETA MUSIKA
GAITASUNA HAUR FOLKLOREKO HERRI KANTUEN BIDEZ GARATZEKO

Arantza Almoguera

Axuri beltza

Arantza Almoguera

1. BERTSIOA	2. BERTSIOA: EUSKARA BATUAN
Axuri beltza Axuri beltza ona dut bainan, Xuria berriz ohea, Dantzan ikasi nai duen orrek Nire oinetara begira. Zertan ari aiz bakar dantzatzen Agertzen gorputz erdia? Su ilun horren argitzen badik Agiriko aiz guzia.	Axuri beltza Axuri beltza ona dut baina, Zuria berriz hobeia, Dantzan ikasi nahi duen horrek Nire oinetara begira. Zertan ari haiz bakar dantzatzen Agertzen gorputz erdia? Su ilun horren argitzen badik Ageriko haiz guzia.

Dantza baten letra baita —kantatzen diren dantza gutxi horietako batena— batera dantzatzen eta kantatzen saiatukoa gara.

Koreografia ikasten hasi baino lehen, kantua zenbait aldiz entzunen dugu eta, erritmoa barneratuz joateko txaloz (azentua eta pultsua) akonpainatuko dugu edo biribil batean urratsak eginez.

Horren ondotik, kantuaren erritmoaren irakurketa egin. Koreografia jauzi dantzetan oinarrituko dugu, urratsak eta itzuliak pixka bat soilduz, eta biribilean dantzatuko dugu.

Kantua lau konpasa duten lau esaldierdi berdinetan banaturik egonda, koreografia berbera izanen da beti esaldi bakoitzerako (bertze oinarekin hasi eta noranzkoa aldatuta). Laugarren esaldia jauzi bat eginez amaituko dugu. Biribil batean dantzatu:

Paso con el pie derecho (♩), paso pie izquierdo (♩)- desplazándonos hacia delante-, damos media vuelta a la vez que hacemos paso con el pie izquierdo (♩), derecho (♩), izquierdo (♩)- manteniéndonos en el sitio-; pasos desplazándonos: izquierdo (♩), derecho (♩), media vuelta en el sitio con pie derecho (♩), izquierdo (negra), derecho (♩). Se vuelve a repetir los anterior: Paso con el pie derecho (♩), paso pie izquierdo (♩)- desplazándonos hacia delante-, damos media vuelta a la vez que hacemos paso con el pie izquierdo (♩), derecho (♩), izquierdo (♩)- manteniéndonos en el sitio-; pasos desplazándonos: izquierdo (♩), derecho (♩), media vuelta en el sitio con pie derecho (♩), izquierdo (♩), salto con los dos pies (♩).

Koreografiaz jabetu ahala kantuaeren letra ikasiz joan gintezke eta batera kantatu. Behin abestia ikasiz gero, partitura erakutsi eta abestu musika noten bidez.

Koreografia ikasteko jarduera erlaxazio aktibitate bat eginez amaituko dugu. Erlaxamendua lasaitze progresiboan oinarrituko dugu. Musika erlaxagarria edo lasaigarria entzuten dugula, etzanik gaudela, tentsio eta distentsioen bidez gorputz atal bakoitza erlaxatuz joanen gara.